

**OINARRIZKO IKERKETAKO ETA/EDO IKERKETA APLIKATUKO PROIEKTUAK
(OIAP) EGITEKO LAGUNTZAK (2023-2025) ETA IKERKETA ETA BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKORAKO (UEP)LAGUNTZAK 2023-2024**

Kontaktua UPV/EHU:

Ikertzaile nagusiek erreferentziak beren teknikerekin jarri behar dute harremanetan dagokien campusaren arabera:	BIZKAIKO CAMPUSA: convocatoriasbizkaia.dgi@ehu.eus
	GIPUZKOAKO CAMPUSA: convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.eus
	ARABAKO CAMPUSA: convocatoriasaraba.dgi@ehu.eus

Deialdiaren helburua:

Deialdiak bi laguntza lerro ditu:

1. Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko Proiektuak (aurrerantzean **OIAP**):
 - a. 1. modalitatea: Erakunde bakarreko ikertaldeak proiektuak.
 - b. 2. modalitatea: Lankidetzak proiektuak, zeinetan parte hartzen duten erakunde ezberdinetako ikertzaile taldeak proiektu berean.
2. Ezagutza unibertsitateko enpresetara eramateko ikerketa proiektuak (aurrerantzean **UEP**). Parte hartzen duten enpresek proiektuaren kostu osoaren %10, gutxienez, finantzatu beharko dute, eskudirutan egindako ekarpenarekin.

Onuradunak:

Baldintza hauek bete behar dituzte taldeek deialdi honetan parte hartzeko:

- a. **A edo B talde gisa egiaztatuta EZ egotea** euskal unibertsitate sistemako ikertaldeak jarduerak laguntzeko 2022-2025 aldirako laguntzen deialdian.

UEP lerroko enpresen ezaugarriak:

Enpresa parte hartzaileak edo parte hartzaileak, zeinek den-denek eduki behar duten beren **egoitza soziala EAEn** eta eskaeran parte hartu, ezin izango dute jaso diru laguntzaren parterik, ez zuzenean ez zeharka. Beraz, proiektuaren esparruan, unibertsitate onuradunak ezin izango ditu horiek kontratatu lanak egiteko, eta enpresa horiek ezin izango dute hornigairik saldu, ezta geldialdi teknikoengatik kobratu ere. Aitzitik, eskudirutan egindako ekarpen ekonomikoen gain, honako hauek ipini beharko ditu enpresak: proiektuaren helburuak lortu ahal izateko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak, horrek, izan ere, enpresak proiektuaren emaitzekiko duen interesa uzten baitu agerian. Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sarean egiaztatutako eragileak ez dira enpresatzat hartuko kasu horretan, enpresetako I+G unitateen kategoriakoak izan ezik.

Aurrekontua prestatzeko jarraibide orokorrak:

Langileen kontratazioa	<u>Doktoratu aurreko kontratuak:</u> Deialdiaren 5.2.a.1. artikulua jasotakoaren arabera <i>“Laguntzaileen kontzeptuan, lanaldi osoagatik 22.192 euroko diru-laguntza jaso ahal izango da laguntzaile beraren lehenengo eta bigarren urteetarako eta 23.546 eurokoa hirugarren urterako, OIAPen kasuan”</i> . Horrek esan nahi du diru laguntza horretatik 22.192 € esleitu daitezkeela pertsona bat urte batez lanaldi osorako kontratatzeko. Deialdi honetarako formalizatzen diren kontratuen ordainsaria Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 21. artikulua eta prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen estatutua onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak arautuko dute eta 2021-22 ikasturteari dagokiona 21.863 euro ingurukoa izango da.
	<u>Doktoratu ondoko kontratuak:</u> Beharrezkoa izango da kontratua kofinantzatzea.
	<u>Doktore ez diren laguntzaileak:</u> 22.192 €/urteko gastua bakarrik onartzen da lanaldiaren %100erako. Beraz, gainerakoa PES proiektuei eta/edo taldeei dagozkien organikoek finantzatu beharko lukete.
Ekipamenduen erosketak	Proiektuaren kargura eskuratutako ekipamendu bakoitzak urteko 20.000 euro baino gutxiago balio beharko du, BEZ gabe. Deialdiak debekatu egiten du material informatiko inbentariagarria erostea.
Material suntsikorra	Kanpo geratzen da bulegoko material orokorraren finantzaketa.
Bidaiak	Proiektuaren jardunak burutu ahal izateko egiten direnak. Bidai gastuak onartuko dira, proiektua betearazteko azken urtean lortutako emaitzak erakusteko, baina ikertaldeko pertsona bakar batentzat soilik.
Bestelako gastu batzuk	Finantzatutako urteko aurrekontuaren %5a gehienez, baldin eta proiektuaren helburuak garatzeko beharrezko direla justifikatzen bada.

Taldeen osaera:

*Arau orokorrak:
<ul style="list-style-type: none"> - Ikertzaile nagusi bakoitzaren eskaera bakarra onartuko da lerro bakoitzeko. - Ikertzaile bakoitzak eskaera bakarrean parte hartu ahalko du deialdiko lerro bakoitzeko. - Ezin izango dute parte hartu deialdi honetan laguntza lerro bereko proiektuetan parte hartzen duten edo parte hartu duten ikertzaileek, baldin eta eskabidea aurkezten den egunean beren jarduketak oraindik itxi ez badituzte obligazioak bete gabe dituztelako, emaitzen argitalpena izan ezik.

OIAP lerroan:	
Ikertzaile nagusia	<ul style="list-style-type: none"> – Doktore titulua – UPV/EHUrekin kontratua proiektuaren iraunaldi osorako eta 4 hilabete gehiagorako. <p><u>Eusko Jaurlaritzak ez du kontratua luzatzeko konpromisorik onartuko ikertzaile nagusientzat.</u></p>
Gutxieneko taldea	<ul style="list-style-type: none"> – 3 pertsonak, gutxienez, osatuko dute taldea, eta horietatik 2k, gutxienez, doktore titulua eduki behar dute, eta horien artean ikertzaile nagusiak egon behar du. – UPV/EHUrekin kontratua proiektuaren iraunaldi osorako. <p><u>Eusko Jaurlaritzak ez du kontratua luzatzeko konpromisorik onartuko gutxieneko taldeko kideentzat.</u></p>
Ikertaldea:	<ul style="list-style-type: none"> – Gradu, Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitektura titulua. – Aurreikusitako kontratuaren iraunaldia proiektuan eman hartu behar duten denbora tarte baina laburragoa bada, kontratua iraunarazteko konpromisoa eskatu beharko dute. <u>Ikerketaren arloko Errektoreordetzak konpromisoa luzatzeko aukera aztertuko du ikertzailearen egoera zehatzaren arabera.</u>
Taldearen gutxieneko dedikazioa:	Urteko 1.400 ordukoa izan beharko da, eta talde bakoitzeko ikertzaile nagusiak urteko 420 ordu eskaini beharko ditu, gutxienez.

UEP lerroan:
<p>Ezinbesteko baldintza da gutxienez UPV/EHUko ikertalde batek eta EAEn egoitza soziala duen enpresa bateko kideek parte hartzea proiektuan.</p> <p>Gutxieneko taldea: 3 pertsona</p> <p>a) Ikertzaile nagusi bat, doktore titulua izango duena eta erakunde eskatzailearekin estatutupeko edo lan kontratuko lotura bat izan behar duena proiektuaren indarraldi osoan eta ondorengo 4 hilabeteetan.</p> <p>b) Gainerako ikertzaileak, doktore edo lizentziatura titulua, arkitektura edo ingeniari-tza edo unibertsitateko gradua izan behar dutenak.</p> <p><u>Erakunde parte hartzaile bakoitzean baldintza hori betetzen duen ikertzaile bat, gutxienez, egon beharko da, eta erakundearen plantillakoa izan beharko da.</u></p> <p>c) Enpresetako langileak, programaren xede den teknologiaren arloan esperientzia egiaztatua dutenak eta aurreko paragrafoetan adierazitako kategorietan sartzen ez direnak.</p>

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaera ondoko esteka honen bitartez bete behar da:
https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2022/piba-pue-2022/web01-tramite/eu/

OIAP lerroko 2. modalitaterako eskabideen kasuan, parte hartzen duten erakunde guztiek, 3. artikuluan jasotako erakundeak ere izan beharko direnak, eskatzaile gisa jardungo dute.

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:

AZKEN EGUNA	IZAPIDEA
2022/11/04	<ul style="list-style-type: none"> - I. eranskina bidaltzea proposatutako langileen zerrendarekin, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan. - Ikertzaile nagusiak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena bidaltzea (barne dokumentua). <p>Barne dokumentu horiek Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean daude eskuragarri: https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-proiektuak</p>
2022/11/09	<ul style="list-style-type: none"> - II. eranskina bidaltzea, eskaera eta Proiektuaren Memoria. - Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzak sinatutako agiria (erantzukizunpeko adierazpena) bidaltzea. Agiri horretan adieraziko da deialdi honetan eskatutako proiektua garatuko den urteetan aktibo dituen proiektuei zenbat denbora eskainiko dien, bai eta eskatutako proiektuari bakoitzak zenbat denbora eskainiko dion ere. <p>Dokumentu horiek aplikaziotik ateratzen dira, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren esteka honetan dagoen eskaera bete ondoren: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173405</p>
2022/11/14	Deialdiaren bukaera

Ikertzaile nagusiaren campusaren arabera, eskatutako dokumentazioa aipatutako epearen barruan bidali beharko da dagokion helbidera:

- Bizkaiko Campusa: convocatoriasbizkaia.dgi@ehu.eus
- Gipuzkoako Campusa: convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.eus
- Arabako Campusa: convocatoriasaraba.dgi@ehu.eus

Ezin izango da ziurtatu ordezkari legalaren sinadura lortuko denik, behin aurreko taulan aipatutako epeak igaro direnean.